



GOAZEN!



LIBURUAREN FITXA

Charlotte Dematons, *Goazen!* Tarttalo, 2007

AURKEZPENA

Dendarako bidea ez da beti dirudien bezain erraza. Zenbaitetan herensugeak eta erraldoiak ezkutatzen dira basoko zuhaitzen artean; itsaso handiak zeharkatu behar dira eta hainbatetan aurre egin behar zaie pirata maltzurrei... Etxeko lorategian gertatzen dira zenbaitetan emozioz beteriko abentura horiek; edota gure gelan edota komuneko bidean...

KONTAKETA

- Lehenengo orriari ondo begiratu. Hor ikusten da etxea eta denda, hor asmatu beharko da zer ibilbide egin behar duen haurrak dendara iristeko.
- Orriz orri arakatu haurraren ibilbidea, zer ikusten duen, zer sentitzen duen...
- Benetan gertatzen al da orri bakoitzean ikusten dena?
- Konparatu lehen eta azken orriak. Haurraren ibilbidea berregin. Xehetasunak behatu eta desberdintasunak adierazi.

PROPOSAMENAK LUZATZEN

- Begirada bideratu batetik bestera mutikoaren ibilbidea aztertuz.
- Nondik nora doan, zer gertatzen den orrialde bakoitzean...
- Planoak egin. Gauzak goitik begiratu: mahaia, baloia, haur bat...
- Beldurrezko ibilbide bat irudikatu.



PROPOSAMENAK ZEHAZTEN

- Zure etxetik dendara joateko bidean zer dago? Bakarrik joan al zara noiz edo noiz?
- Noizbait pasatu duzu beldurrik norabaiterako bidean?
- Zure gelan ba al dago mamurik? Non gordetzen dira?